DEBAKO UDALA

2021SECG0007
7.bilera: OHIKOA 2021/11/25

# TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILKURA-AKTA
ACTA de la JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

BILERA ZK.: 7/2021
EGUNA: 2021/11/25
HASIERA ORDUA: 17:00
AMAIERA ORDUA: 17:35
TOKIA: Bilera gela, 2. solairua.

SESIÓN Nº: 7/2021
DÍA: 25/11/2022
HORA DE INICIO: 17:00
HORA DE FINALIZACIÓN: 17:35
LUGAR: Sala de reuniones, planta 2ª

**BERTARATUAK:**

Gilen Garcia Boyra, alkatea
Aritz Larrañaga Unanue (EH Bildu)
Antxoka Elorza Altuna (EH Bildu)
Itziar Irizar Beristain (EH Bildu)
Pedro Bengoetxea Loiola (Debarren Ahotsa)
Ane Egidazu Elosua (Debarren Ahotsa)
Iñigo Cambronero Alkorta (EAJ-PNV)
Eneritz Gómez Lázaro (EAJ-PNV)

Joseluis Salaberri Iñarra (Idazkaria)

ASISTENTES:

Gilen Garcia Boyra, alcalde
Aritz Larrañaga Unanue (EH Bildu)
Antxoka Elorza Altuna (EH Bildu)
Itziar Irizar Beristain (EH Bildu)
Pedro Bengoetxea Loiola (Debarren Ahotsa)
Ane Egidazu Elosua (Debarren Ahotsa)
Iñigo Cambronero Alkorta (EAJ-PNV)
Eneritz Gómez Lázaro (EAJ-PNV)

Joseluis Salaberri Iñarra (Idazkaria)

**ESAN-EGINAK ETA ERABAKIAK**

**1. Debako Udaleko 2021eko 9, 10 eta 11 zenbakidun fakturen zerrendak onartzea, hala badagokio.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartzen ditu Debako Udaleko 9, 10 eta 11 zenbakidun fakturen zerrendak.

**2. Itziarko Auzo Udaleko 4 zenbakidun fakturen zerrenda onartzea, hala badagokio.**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartzen du Itziarko Auzo Udaleko 4 zenbakidun fakturen zerrenda.

**3. Deba Musikaleko 3 zenbakidun fakturen zerrendak onartzea, hala badagokio.**

TEMAS TRATADOS Y ACUERDOS

1. Aprobar, si procede, las relaciones de facturas números 9, 10 y 111 del Ayuntamiento de Deba

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprueba las relaciones de facturas números 9, 10 y 11 del Ayuntamiento de Deba.

2. Aprobar, si procede, la relación de facturas número 4 de Itziarko Auzo Udala.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprueba la relación de facturas número 4 de Itziarko Auzo-Udala.

3. Aprobar, si procede, la relación de facturas número 3 de Deba Musikal.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, onartzen du Deba Musikaleko 3 zenbakidun fakturen zerrenda.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprueba la relación de facturas número 3 de Deba Musikal.

**4. Itziarko industrialdeko 38. eremuko T1 lur zatiaren xehetasun-azterlana onartzea, hala badagokio.**

Behin aztertuta Itziarko industrialdeko 38. eremuko T1 lur zatiaren xehetasun-azterlanari dagokion espedientea, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabakitzen du:

Lehena.- Hasierako onespena ematea Gurutzpe Turning Solution, SL enpresak sustatutako Debako Itziar industrialdeko 38. Eremuko T1 lurzatiaren xehetasun azterlanari.

Bigarrena.- Xehetasun azterlana jendaurrean jartzea hogei (20) eguneko epean , iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek iradokizunak edo alegazioak aurkeztu dezaten.

Halaber, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 85.3 artikuluak xedatutakoari jarraituz, ez da edozein motatako onarpenik edota baimenik eta lizentziarik emango xehetasun-azterlanak hartzen duen eremu guztian.

4. Aprobar, si procede, el estudio de detalle del ámbito 38 de la parcela T1 del polígono industrial de Itziar.

Analizado el expediente del estudio de detalle del ámbito 38 de la parcela T1 del polígono industrial de Itziar, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente el estudio de detalle de la parcela T1 zona 38 del polígono industrial Itziar de Deba, promovido por Gurutzpe Turning Solution, SL.

Segundo.- Someter el estudio de detalle a información pública durante un plazo de veinte (20) días, contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que los interesados puedan formular sus sugerencias o alegaciones

Asimismo, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 85.3 de la Ley 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo, no se otorgará ningún tipo de aprobación, autorización o licencia en todo el ámbito afectado por el estudio de detalle.

**5. Amillagako A.U.06 BEPBaren aldaketaren hasierako onarpena, hala badagokio.**

Behin aztertuta A.U.06 "Amillaga" eremuko Barne Erreformarako Plan Bereziaren aldaketaren espedientea, non hasieran onetsitako dokumentuan jasota ez zeuden hizkuntza-eraginari buruzko azterlana eta generoaren araberako eraginari buruzko txostena sartu diren, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabakitzen du:

Lehena.- Hasierako onespena ematea (2. onarpena) A.U.06 "Amillaga" eremuko Barne-Eraberritzeko Plan Bereziaren aldaketari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, berriz ere, hogei (20) eguneko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, interesdunek beren iradokizunak edo alegazioak aurkez ditzaten.

5. Aprobación inicial, si procede, de la modificación del PERI A.U.06 de Amillaga.

Analizado el expediente de la modificación del del Plan Especial de Reforma Interior del ámbito A.U.06 "Amillaga", en el que se han incluido el estudio de impacto lingüístico y el informe del impacto en función del género que no constaban en el documento aprobado inicialmente, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Aprobar inicialmente (2ª aprobación) la modificación del Plan Especial de Reforma Interior del ámbito A.U.06 "Amillaga".

Segundo.- Someter el expediente a un nuevo periodo de información pública durante un plazo de veinte (20) días, contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, a fin de que las

personas interesados puedan formular sus sugerencias o alegaciones.

Hirugarrena.- Egindako txosten sektorialak eta jendaurreko informazioaren aurreko izapidean aurkeztutako alegazioak espedientean txertatuta geratuko dira, errepikatu beharrik izan gabe; izan ere, Plan Berezia ez da aldatzen hasierako onarpenaren xede izan zenarekin alderatuta.

Tercero.- Los informes sectoriales ya emitidos y las alegaciones presentadas en el anterior trámite de información pública quedarán incorporados al expediente sin necesidad de que tengan que ser reiterados, toda vez que el Plan Especial no se modifica respecto al que fue objeto de la primera aprobación inicial.

**6. Osoko Bilkuraren gai zerrendako gaien azterketa**.

Alkateak azaltzen du komenigarria dela gaurko osoko bilkuraren gai zerrendan sartzea Elizburuko lurzatian Udalak duen %37,03ko partaidetza Proteisa 2002 SL enpresari zuzenean saltzea onartzea, eremu horretan egingo diren etxebizitza tasatuen gaia azkartze aldera.

Bestalde, azaltzen du gaurko osoko bilkuraren gai zerrendan agertzen diren hiru mozioaz gain, beste bi mozio berri aurkeztu direla, batetik euskaren nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzionalaren onarpena, eta bestetik, Ukrainari buruzko adierazpen instituzionalaren onarpena.

Euskaren nazioarteko eguna abenduaren 3an dela aintzat hartuta, egokia jotzen du gaurko osoko bilkuran aztertzea, Ukrainari buruzko adierazpen instituzionalari dagokionez, berriz, gaiaren larritasuna, eta gaia behar bezala aztertzeko astirik ez dela egon kontuan hartuta proposatzen du adierazpen instituzional hori hurrengo osoko bilkuraren gai zerrendan sartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, erabakitzen du:

Lehena.- Proposatzea gaurko osoko bilkuraren gai zerrendan sartzea Elizburuko lurzatiaren partaidetzaren salmenta, eta euskaren

6. Análisis de los asuntos incluidos en el orden del día del Pleno.

El alcalde expone la conveniencia de incluir en el orden del día del día del Pleno de hoy la aprobación de la venta directa a Proteisa 2002, S.L. del 37,03% de participación municipal en la parcela de Elizburu, con el fin de agilizar el tema de las viviendas tasadas que se van a construir en este ámbito.

Por otra parte, explica que además de las tres mociones que figuran en el orden del día del Pleno de hoy, se han presentado otras dos nuevas mociones, por un lado, la aprobación de la declaración institucional del día internacional del euskera y, por otro, la aprobación de la declaración institucional sobre Ucrania.

Teniendo en cuenta que el día internacional del euskera es el 3 de diciembre, considera oportuno tratarlo en el Pleno de hoy, mientras que, en lo que respecta a la declaración institucional sobre Ucrania, habida cuenta de la gravedad del asunto, y que no ha habido tiempo para analizarlo debidamente, propone que esa declaración institucional se incluya en el orden del día del próximo Pleno.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acuerda:

Primero.- Proponer que en se incluya en el orden día del Pleno de hoy la venta de la participación de la parcela de Elizburu y la

nazioarteko egunaren inguruko adierazpen instituzionala.

declaración institucional del día internacional del euskera.

Bigarrena.- Ukrainari buruzko adierazpen instituzionala hurrengo osoko bilkuraren gai zerrendan sartzea

Segundo.- Incluir la declaración institucional sobre Ucrania en el orden del día del próximo Pleno.

**6. Eskari eta galderak**

6. Ruegos y preguntas

Pedro Bengoetxeak galdetzen du eukaliptoa landatzeari buruz aurkezten ari diren mozioei buruz.

Pedro Bengoetxea pregunta sobre las mociones que se están presentando en relación con la plantación de eucalipto.

Alkateak erantzuten du gaia aztertzen ari direla Itziarko batzarrarekin eta, ziurrenik, mozioa hurrengo Osoko Bilkuran aurkeztuko dela.

El alcalde responde que están analizando el tema con la junta de Itziar y que, posiblemente, la moción se presentará en el próximo Pleno.

Horrenbestez, beste aztergairik ez dagoenez, 17:35ean amaitzen da Tokiko Gobernu Batzarraren bilera.

Sin más temas que tratar, a las 17:35 horas finaliza la sesión de la Junta de Gobierno Local.

Joseluis Salaberri Iñarra
Idazkaria

Gilen Garcia Boyra
Alkatea